

# Billabesan



INMA ERREA  
IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

**B**adakit batzuek gorrotatzen dutela garraio kolektiboa, nahiago dutela beraien autoa gidatuz mugitzea, baina nik plazer hartzen dut autobus edo tren bat hartu behar dudanean.

Iruñerriko autobusean ibiltzea, billabesan, beti gustatu izan zait. Bidaia batek irauten duen epean -10-15 minutu, gehienez 20-, mundu oso bat hedatzen da begien aitzinean: askotariko jendea, askotariko aurpegierak eta hizkerak, denetarikoa adinak eta jiteak, portaerak eta aldarreak, eta haur txikien bizitasun nekaezina, batera eta bestera begiratzen tematurik ea helduren batek kasu egiten dien... Eta egungo joera unibertsala: nor bere mugikorrari so, edo autobusaz haragoko norbaitekin ele-melean (musika huts bihurtuta, hizkuntza ulertzerik ez dudanean).

Hirian barna billabesan joateak jende ezezagun eta askotarikoarekin lotzen nau, arinki bada ere, eta horrek jendeago bihurtzen nau, pertsonago, eta, gainera, jakin-mina asetzen dit giza izaerari buruz.

Autobus bat laborategi soziologiko bikaina baita. Bertan hauteman daiteke, supermerkatuan bezala, nola jokatz

Hirian barna billabesan joateak jende ezezagun eta askotarikoarekin lotzen nau, arinki bada ere, eta horrek jendeago bihurtzen nau, eta gainera, jakin-mina asetzen dit giza izaerari buruz

dugun bizitzan, nola moldatzen garen besteekin: ordena gordetzen dugun autobusera igotzean (Iruñerrian fama dugu: ilararik ez, eta geralekura azken iristen direnak lehenak sartzen dira ibilgailura); noren ondoan esertzen garen (emakumeak emakumeen ondoan, edo gazteak gazteekin...); pasabidea-

ren ondoko eserlekuan jartzen garen, leihatilaren aldekoa hutsik utzita (nolabait adierazi nahian inor ez dugula nahi ondoan?), edo ausartzen garen hala jokatzan duenari tokia guri egiteko eskatzen...

Berez, autobusean joateko erabaki hutsak asko dio gutaz: jende frankok baitezpada hartzen du autobusa -ikasleek, etorkin-emakume-langileek, adineko jendeak...-, baina garraio kolektiboaren defendatzaile teoriko anitzek ez dute inoiz autobusa hartzen. Ezta esperimentu gisa ere.

Eta kanpoaldera, jendeari eta paisaiari, begiratzeaz gain, autobusez bidaiatzean badugu aukera barnerantz ere so egiteko, geure baitara. Norberaren kontraesanak arakatzeko, gure uste eta iritzietan ustelak eta urreak begiztatzeko: distantzia neurtzeko, adibidez, adimenaren arragoan jasotako ideia berdinzaleen eta gure gorputza habia duten arbuio-izu-mesfidantzen artean, jakiteko tartea luze edo labur doan, harrotzen gaituen ideologiatik gorputzean hezurmamitutako konbenzimenduetara.

Hori guztia billabesan, merke samar. ●

# BURU JABETZAK

## Jardunaldiak

eman  
izena!

Urriak  
19-20-21

burujabetzak.jardunaldiak.eus






